

EUSKARAREN NORMALTZEA

Euskadi baketzearen helburuak ez ditzake ahaztu, kultur desberdintasunak hemen sortzen dituen arazoak eta, bereziki, bi hizkuntza desberdin, euskara eta gaztelera, autonomi elkarte beraren lurraldean egonak planteatzen dituen korapiloak.

Funtsean pozez hartu behar litzatekeena, bi hizkuntza edukitzeak benetako giza aberastasuna adierazten duenez, gauden egoeran ere istilutsuan bizi dugu; eta hau ez dezake ahaztu ba-kearen bideetan zinez aurrera egin nahi duenak.

Izan ere, hizkuntz desberdintasuna zehatz-mehatz sozio-kultur alorreko zatiketaren hasiera da, eta zatiketa honek zaila-gotu egiten du bizikidetzeta, eta ukitu ere ukitzen du, bakoitzaren iritzien arabera, hau baizik izan behar ez lukeena: norberari eta elkarteari dagokion zuzentasunaren oinarriak leialki errespetatzea.

Ez hori bakarrik. Herri baten aitortpena egiteak erraz eramaten du bereizkuntza adierazten duten osagaiak sendotzera, berauetan isladatzen bait da norberetasun jator eta berezia. Horrela euskara ikusten da, ez gizatasunaren kultur aberastasun huts bezala, baizik eta Euskal Herriko projektua asmatu eta landu ahal izateko ongi balioztatu behar den osagai bezala.

Projektu horren barruan, nahitaez, euskara defenditu beha-

rraren arazoa sartuko da. Baina sartuko da, baita ere, zenbait hizkuntzaren eremu euskararentzat berreskuratu behar diren arazo korapilotsua, kontutan izanik badirela eremuak ia orainsu arte mintzabide euskara erabiltzea ohizko zerbait zutenak, eta orain ohitura hori ia galdu dutenak. Honi erantsi behar zaio, uste izaten dela, eta ez arrazoirik gabe, galbide hori Administrazio Zentralaren jokabideagatik izan dela, jokabide hori desegokia izan delako, zuzenkontrakoa izan ez bada.

Behin eta berriz esan behar den gauza da, arazo honetan, zenbait balio etiko sartzen dela tartean, hain zuzen kulturak eta bereziki hizkuntzak pertsonen eta herrien garapen betearekin lotura estua duten neurrian.

Gehiago oraindik, moduak egin beharko dira, balio etikoei zor zaien begiruneak nolerebaiteko sendotasuna ekar dezan esparru sozial honi buruzko «politiketara», erabaki publikoak hartzen dituztenen eskubideei ezartzen zaizkien mugen ondorio eta fruitu izango den sendotasuna, horrela herriarekiko joku arriskutsurik egon ez dadin.

Izan ere gizarteak, herriak berak, izan behar du kulturaren zutabca. Eta badago herriari adorea, eragina eta beharrezko nahiz ongarrizko diren baldintza objetiboak eskaintzerik, baina ez herria ordezkatzetik. Ezarketa guztiek, edozein koloretakoak direla ere, kontzientzien gain egindako bortxakeriaren seinalea daramate. Eta bortxakeriak, lehenago edo geroago, eztanda egingo du, eta galerazi ere bai kulturak, bere izatez, ekarri behar lituzkeen errespetu eta askatasunezko adiskidetasuna.

Guzti horrek, ordea, ez luke galerazi behar hizkuntz eta kultur politika baten legezkotasuna baieztatzerik, politika hori gizarte eta kultur egoerek mehatxaturiko defendatzeko denean, edota lehenagoko ekintza okerrek mehatxaturikoak defendatzeko denean. Eta ez dira baztertzeko balio horien alde hartutako neurri bereziak ere. Neurri hauek bereziki hezkuntz politikaren esparrua uki dezakete. Eta gauza bera esan daiteke, kargu eta eginkizun publikoak hartzeko, hizkuntzaren ikuspegitik, eska

daitezkeen baldintzei buruz ere.

Nahitaezkoa izango da, egoera «normalduago» batera iristen garen arte, dela pertsonen arteko harremanetan, dela erakunde publikoen arieran, komunikazio zailtasunak, liskarrak, tenkak eta istiluak egotea. Herriaren heziketan oinarritzen den elkarrenganako onarpen zabalean, eta honekin batera hizkuntz politikako neurriak hartzean, hauetan bakarrik aurki daiteke bidea gauzak ezarian ezarian baketzeko, eta horrela urruntzeko, autonomi elkarte bakarraren barruan, elkarren kontra dauden bi kultur elkarte mamitzeko arriskua.

*(J. M.^a SETIEN, Elkarriturik bakea eraikitzea zuzentasunean
1988, Abendua - Eguberri, 31, 33, 35. orr.)*